

Aitor Bouzo: «Bi txartel hori eta gorri bat baino ez dut jaso»

Aitor Bouzo gaztea, ermutarra bera eta euskalduna, dudarik gabe Ermua futbol Taldeak eman duen jokalaririk onenatarikoa dugu, edo behintzat etorkizunari begira, punta-puntako ekiporen batean jokatzeko aukera garbienak dituen.

Bera, gainera, beste hainbat gauzen artean, karrera ikasketak dutenatariko futbolari gutxi horietarikoa da eta bere asmoa futboleko aritza bada ere, ez du lan 'arrunta' esango genukeena alboratzerik nahi. Dena den, futbola da gaur egun bere gurarik nagusia eta, zergaitik ez, ez lioke ezertzik esango Donostiako Errealean jokatzeari.

GALDERA.— Non zaude orain eta noiz eta nola hasi zinen baloiari ostikadaka?

ERANTZUNA.— Hasi, noski, beste hainbat gaztetxok bezela auzoan hasi nintzen baloiari lagun artean ematen. Gero, garai haietan, Ermua Futbol Taldean hasi nintzen infantiletan, jubeniletara pasatuz, Ermuak duen lehen ekipoen sartu baino lehen. Bertan bi urte egin nituen eta azkenik hirugarren mailara igotzeko promozioa jokatu eta gero Durangoko Kulturalak fitxatu ninduen. Hiru urte pasa nituen hantxe azkenik Sestao Sport Club-ak fitxatu nauen artean. Aurtengoa nere bigarren denboraldia da 'bigarren A' dibisioan.



G.— Nolakoa da kategoria? Gainera aurrelaria izanik, txarto pasatzen duzu?

E.— Dibisioa oso gogorra da. Ekiporik gehienak, gainera, profesionalak dira eta denek beraie indabak jokoan jartzen dituzte asteburuetan. Honengaitik, sarritan, jokalarien arteko sarrerak behar baino gogorragoak izaten dira eta egia da, bai, Lehen dibisioan baino gutxiago lagatzen dela jokatzeko. Askoz era txapelketa porrokatua da hau.

G.— Dena den, zuk ere zeureak emango dituzu?

E.— Ni egia esan, oso nortasun lasaia naiz eta ez zait gehiegi guztatzen indar gehiegikeria. Are gehiago, nere futbolari bizitza guztian orain arte, bi txartel hori besterik ez ditut ikusi eta, beno bai, gorri bat ere, baina oso kasu berezia izan zen, kontrako denbora guztian niri ziria sartzen aritu bait zen azkenik eztanda egin nuen arte. Normalean, hala ere, gauzak asko pentsatzen ditut egin baino lehen eta ez zaizkit hala nola kableak gurutzatzen.

G.— Indabak jokoan jartzeaz aritu zara. Zein da zure egoera momentu honetan?

E.— Beno, oraintxe bertan enpresarial ikasketetako azken urtean nago eta pozik baldin banago aurten bukatu ahal izango ditudalako, egia esan, oso zaila gertatzen zait ikasketak eta futbola batera eramateak.

G.— Eta zer dira urtero zure inguruan zabaltzen diren zurrumurru hoiek, goimailako hainbat ekipo atzetik dituzula?

E.— Beno, ni momentu honetan Sestao nago, pasa den urtean sartu nintzen eta entrenatzaileak emandako aukera onei esker ahal dudan ondoen jokatzeko ari naiz, nere betebeharrak burutzen.

Egia da pasa den denboraldiaren bukaeran nahiko ondo ibili nintzela eta zenbait taldeen izenak entzun izan zirela, besteak beste Sabadell eta Malaga. Baina beno, badakizu, gehien bat gaur egun gauza guzti hauentzako bitartekariak daude eta neri, pertsonalki, Mikel Santosek daramazkit era honetako gaiak.



Txartel gorria jaso nuenean oso kasu berezia izan zen; kontrakoak etengabe ziria sartzen ihardun zuen eta azkenik eztanda egin nuen.

IRUDI ARGAZKIAK

Irudi

Zubiaurre, 26, Tlf.: 172459
ERMUA



Ni Errealzalea naiz eta ez litzaidake ardurako bertan jokatzeari. Noski, badakit baldintza ekonomikoak ere kontutan hartu beharrekoak direla, baina ahal izanik Errealean jokatu gura nuke.

G.— Pentsatu al duzu inoiz futbolaz bizitzea?

E.— Karrera edo ikasketak, futbola eta honetaz bizitzea, benetan oso gauza problematikoa dela. Begira, Durangoko kulturalen negoean Donostian ari nintzen ikasten eta astean lau aldiz entrenatu beharra nuen, bidean kilometro pila bat eginez; egoera honetan gauza asko plateatzen zaizkizu. Aldiz, orain, Sestaon nago eta ikasketak Bilbon egiten ditut. Gainera gauzak era ezberdin planteatzen dituzu. Orain soldata bat dut, beste hainbat langileen parekoa. Oso gutxi beste

taldeetan ordaintzen denarekin konparatuz, baina gutxika-gutxika indartzen zaizu barnean futbolaz bizi ahal izatearen zera... asmo edo gura hori. Eta agian neri falta zaidana da bultzakadaxo txiki hori futbol talde haundiren batera joateko, saltoa emateko.

G.— Eta salto hori heldu ezean?

E.— Beno, hementxe bertan, Sestaon, ondo egongo nintzake futboleko jokatzeko. Bainan gertatzen da neri futbolista bizitzea 30-34 urterekin bukatzen zaidala eta orduan beste gauza bat izatea derri gorrezkoa zait. Futbolaz ondo bizi zaitezke baina bakarrik edade jakin batetara. Horregaitik momentuz bizitzea gehienbat futbolaruntz zuzendu badut ere, komenigarria da beste gauzarik ez alboratzea eta hau da, hain zuzen arrazoia neri ikasketekin jarraitzeko. Dena den zaila da oso biak elkar eramatea, batez ere azterketa garaian.

PRO

ARRAINDEGIA

arrain freskuak
eta izoztuak

Zubiaurre, 21
Bulegoko Tlf.: 171696
Etxeko Tlf.: 172433
Merkatu plaza.: 174054

Momentuz bizitzea batipat futbolerantz zuzendu badut ere, komenigarria da beste gauzarik ez alboratzea eta haxe da, hain zuzen, ikasketekin jarraitzeko arrazoia.


G.— Neke guzti horiek, dena den, puntako ekipo batetara joanez gero konpentsatuak geratuko lirateke?

E.— Noski, saltotxo hori gertatuko balitz, orain arteko guztia konpentsatua legoke, gehien gustatzen zaidana egin ahal izango nukeelako. Hombre! Badakit hau bukatuko zaidala, baina, orain arte mailaz igotzen aritu naizen heinean gero eta gehiago gustatu zait. Bigarren A maila oso maila altua da eta jokatzeko egotea orain momentuan gauza motibagarria da. Lan gehiago eta gustorago egiten duzu zeren, kontutan hartu behar da, Sestaon nahiko futbol talde umila izanik ere, oso 'eskaparate' ona dela talde haundiren batek zuzen begiak jartzeko.

G.— Bukatzeko, aukeratzeko premian egonik, nora joko zenuke: Euskal Herriko Athletic edo Errealea edo eta Madrilgo Athletic edo Errealea?

E.— Ahal izanez gero neri hemen Euskadin geratzea guztatuko litzaidake, hemen bizi bait naiz eta hemengo jendea eta bizimodua guztatzen zaizkidalako. Nolanahi ere, esan behar dut ni Errealekoa naizela.

Gainera taldeko zenbait jokalarik kanpoan arituak dira eta beraiek esandakoaren arabera, agian hobe da norberaren herrian egotea, garai txarrak izaten direnean eskertzeko gertatzen bait omen da etxekoak bertan izatea. Bizimoldea desberdina da hemendik kanpo eta bakardedea ere sentitzen omen da. Ni oso gustora nago hemen eta ahal izanik bertan geratzen nahiko nuke.



Etixerako

tresnak

Elektrizitatea



ZABALA

Zubiaurre, 27 - Telf. 170917
ERMUA

BURDINDENDA



Opariak

Brikolagea